

Juan Urreta Zubia

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1924)*

Aurkibidea

Biografia



1924an jaio zen Durana kalean.
Aita Marulandakoa zen eta ama
Aramaion jaiotakoa.

Zintak

ARE-018

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-28
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa - Elexpuru, Juan Martin

ARE-019

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-28
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARE-067

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Barrenetxea, Maitane
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkarte, Loramendi

Pasarteak

1. Herriguneak izan dituen aldaketak

- **Erref:** ARE-018/002
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Durana kalea ez da batere aldatu. Plaza, 1930 inguruan egin zen. Lehenago plaza txiki bat zegoen, eta aldamenean lur-sail bat zuen. Bertan ortuak eta erdian etxe bakar bat. "Soziedade zaharra" esaten zitzaion. Lehenengo plaza nolakoa zen. Udala ere toki desberdinetan egon da.

Transkripzioa

- Eta kalia asko aldatu da zu umia ziñanetik?
- Ez, ez, hori zatixori ez. Hortik horra bai, baiña horraiño ez.
- Zatitxo hori holan...
- Ezautzen dozu zuk [...]?
- Zeozetxo. Ez asko, e?

- Ba, Banco Vizcaya badakizu nun dauen?
 - Banco... Bai.
 - Ba, pixkat... Bat... Gero denda bat dao —denda bat gauza asko saltzen dittuena, bueno, “artículo de regalo” ta horrek danak—, ba, hurrengo etxia. Eitten dau kantoie eitten dau. Ba, hantxe.
 - Orduan, kalia ez da larrei aldatu...
 - Ez, ez, ez da aldatu asko.
 - Baiña bestela...
 - Etxe batzuk, klaro, arreglau ein dira, barrukua ta hori danoi, baiña bestela kalie ez da [hondatu]. Osea, dira etxe batzuk zaharra bota ta barriztu, barriztu in dira, baiña bestela kalia lehengo bezela dao. Ekin hamen plazatik eta ni jaixo nitzan etxerarte, lehenguan moduan, igual-igual dao. Oin, plazia, plazia in zan... plazia ein zan... el año veinte nueve edo treinta edo holakon bat ekin zan. Hemen euan plaza txiki bat —[bueno], orduan Aretxabaletako plazia— eta albuhan euan beste —ez dakit fotografixarik... ez daukat hemen— terreno bat. Eta hari terrenuai, [...] ortuak-eta euezen eta erdixan auen etxe bat, baiña zera, etxe bat ya apurtuta, eta hari deiketan jakon Soziedade Zaharra. Ez dakit, Karlisan gerlan baten edo apurtu [euen] hori etxiori. Eta milla bederatzirehun eta hogeta hamarrian, hogeta bederatzixan edo hortxe inguruan, bota euen hori danoi eta ein zan...
 - Plaza barrixa?
 - Plazia, bai. Ez oin dauen bezela ez, e? Bueno, lehelengo arbolak bai ta berjia be bai. Eta hori beste... beste monumentu bat dao hor plazan... hori be ez, ez [auen]. Eskillarak bai, eskillarak ein zittuen alde bixetatik. Alde bixetatik eskillarak eta plazia. Eta euezen arbola asko. Osea, oin dao illara bi bakarrik ta orduen eozen beste kuadro batzuk, beste illara batzuk eta ez euen etxerik, hona gorarte dana zan plazia. Eta [...] euen, bai, holako plaza bat, illara bat arbolak, gero beste bat... eta plazatik harutza euen holako beste triangular... forma triangular batekin beste terrenotxo bat. Han jaixetan-ta han zezena-ta egoten zan.
 - Ene! Beira...
 - Bai. Bai.
 - Orduan, plaza inguru hori be zeuk ezautu zendunetik...
 - Bai, aldatuta dao asko. Bai, bai, bai.
 - Asko aldatu da.
 - Bai. Ta hor... gero zera, aiuntamentuau ein zan... ez dakit [nik...] ze urtetan ein zan... cincuenta y... ez dakit, cincuenta y tres edo cincuenta y dos edo holakon bat. Bai. [...]. Oin eskolak dira horrek, baiña lehenengo ein zan aiuntamentua. Lehen zaharra zan, han eskudo batekin badao...?
 - Bai.
 - Ha. Handik ekarri [eben] hona. Eta gero pasau zan hemetik oin dauen tokira. Eta hau gero ein zan, ba, gero eskolak.

2. Herria asko aldatu da azkenengo hamarkadetan

- **Erref:** ARE-018/003
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Aretxabaleta asko aldatu da, inguru batzuk batez ere. Gasolinera; bideak...
Mojen komentua, aurretik bainuetxea izandakoa.

Transkripzioa

- Orduan, herrixa dexente kanbixau da, ez?
- Bai, bai. Eta gero...
- Gaiñera, asko hazi da...
- Ta ni jaixo nitzan etxetik, handik, handik gora hori dana aldatu da. Handik dana aldatu da, bai.
- Ze zian lehen?
- Lehen? Ortuek be bai.
- Ortuak?
- Bai. Gu han bizi... Gero, hor ni jaixo nitzen lekutik jua giñan bizittera beste etxe bat. Gure senidiak in euen etxe bat eta han geukan etxia eta ortuak.
- Orduan, kalia be jentia ortuak zekazen?
- Bai, bai, bai, ortuak, bai.
- Eta esaten dozu, orduan, zeuen hasierako etxe hortatik gora, hori, ortuak ziala ta... Oseake, jolasteko ta toki asko eukiko zenduen, ez?
- Bai, bai, bai, bai, ortuak. Euezen, etxe batzuk baeuezen, etxe batzuk baeuezen, baiña tartian ortuak eozen. Eta gero hemen behe-aldian be... behe-aldian ez da asko aldatu hemen kaliek, kalia. Bueno, ez dira asko aldatu zati bateraiño; handik behera bai.
- Klaro. Oseake, hemen zentrua edo alde zaharra mantentzen da...
- Bai. Bai, hori hemetik esaten jakona [“Porruena”], etxia, eta ni jaixo nitzen tokira kalia ez da aldatu asko. Hoixe, plazia bai ein zan. Eta plaza aurrekua... ba, hor be ez euen ezer. Sasoi baten gero gasolinera bat jarri zan eta ez, hola arbola batzuk-eta euezen. Arbola batzuk. Baiña ez da aldatu asko. Klaro, gero hor beste bide bat ein zan, beste kamiño bat ein zan. Hor juten dana... hori be ez euan. Ez. Gero monjak euzen, kolegixua euken monjak, osea, zera, monasterio eta monasterio... hori, euken terreno haundi bat eukan, oso haundixa. Eta gero hori monasterixuoi... Bueno, aurretik hori baiñuetxia izendakue zan. Eta baiñuetxetik gero etorri ziran monjak Mondrauetik, Agustinas, hona etorri zian. Ehun ta... izango dia ointxe ehun ta bi urte edo dira etorri [zienak]. Bai, uste dot ehun ta bi urte, seguru ez nao, baiña uste dot ehun ta bi urte. Eske ez naz akordetan igez izen zan edo oin urte bi izen zan “le centenario”. Bai, ba. Oseake...

3. Herrigunea nolakoa zen bera umea zenean

- **Erref:** ARE-018/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Herriko plaza zaharra. Sozietate zaharra; bolatokia. Pilotaleku zaharra non zegoen.

Transkripzioa

- Ta plazia, esan dozu, plaza zaharra, bueno, arbola asko zekazela...
- Bai. Bueno, plaza zaharrian... oin daon tokixan, hor, hemetikaldian, etorri zan, kamiño bat etorren zerera, eskoletaraiño, honek eskoletara. Bueno, eskolak oin dao [...], baiña lehen zan beste forma bat eukan. Eta [...] , holan, igoera bat. Eta horixe zan plazia. Eta gero bola-lekua euen be bai, bola-tokixa be hemen. Eta gero hori Sozidade Zaharra esaten jakona. Gero hori danoi bota zanien, ba, dana bardinddu [eben].
- Bai, veintinue-treinta inguru horretan, esan dozu, ya plaza barri hori ein zala...
- Hortxe, veinte nueve. Bai.
- Eta gerora be, ba, kanbixuak eukiko dittu...
- Orduen, klaro, arbolak-eta orduen jarri zien horrek arbolok eta gero beste nobedaderik... A! Pelotalekua. Pelotalekua euen plaza gaiñian, plaza gaiñian, puskat harutzatxuao. Eta euan... oin badakizu nun daon pelotaleku bat hor?
- Bai.
- Bai? Ba, euan asko be honutzao, baiña kruzauta. Osea...
- Bai, perpendikular edo...
- Perpendikular. Oin dau... oin dau "en dirección norte-sur" edo, ezta? Bestie zan "este-oeste". Bai. Eta ez euen, hortik ez euen kamiñorik. Hemen euen eskolok eta arbolak eta gero ein zan bolatokixa hor eskolan —ointxe be han dao bolatokixa, baiña lehenao beste tipo bat euan—, eta haren bolatokixan onduan euen, en perpendikular, zera...
- Pelotalekua?
- Pelotalekua. Eta, ostian, ba, zerak, ortuak.
- Orduan, etxe-inguruan eta jolasteko toki asko zekazuen, ez?
- Bai, bai, bai, bai.

4. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-018/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Umetako ibilerak. Jolasean ibiltzeko toki asko; kalean jolasten zen. Pilotarako zaletasuna; futbolean ere egiten zuten. "Pote-poteka", kanikatan, txirikilarekin... Futbolean egiteko erabiltzen zuten baloia.

Transkripzioa

- Orduan, etxe inguruan-eta jolasteko toki asko zekazuen, ez?
- Bai, bai, bai. Eta gero, ba, jolas eitten [geben] kalian. Bufo! Kalian.
- Ze...? Lagun guztiak elkartu eta...
- Bai, bai, bai, bai.
- ... ze eitten zenduen, pelotara edo fubolian edo...?
- Bai, pelotak hemen, pelotalekura hona etorritta, ta fubolien plazan. Fubolien plazan. Ta kalien, ba, "potezarka" ta... [...] orduen [...] potie ifini ta gorde ein [...], ta gero topetan fan eta "danba!" potie jo... Pote-poteka,

[...] pote zaharrakin.

- Ta kaniketan-edo eitten zenduen?

- Baitta.

- Baitta?

- Baitta, bai. Eta zera... zela esaten zan ha? Makila bikin eitten zana haura... “tik!”... E... ez naz akordetan.

- Txirikillia edo?

- Bai, txirikilletan. Baiña txirikilletan zan, eitten zan, garizuman. Bai.

- Beira...

- Garizuman eitten zan txirikilletan.

- Orduan, gauza gitxikin segiduan asmatzen zenduen zeozer: pote zaharrak edo makilla bi edo...

- Bai, bai, makilla... bai.

- Nahikua izaten zan.

- Ta gero fubola ta pelotia. Hori bai.

- Eta fubolian eitteko baloirik-eta ukitzen zenduen?

- Baloi bat? Baloia oso gutxi.

- Edo zeuek eindako zeozer?

- Oso-oso gutxi, oso gutxi. Akordaten naz gero, [...], baloi bat, baloi bat eukan hemen, zera... Nemesio [euk] izena, Nemesio [euk] izena.

“Nemesion baloia”. Eta zan... ez zan borobilla, e! “Sagar ustela” deiketan gutsan. Holakotxe, baiña...

- Forma rarokua?

- Oso!

- Orduan, harek bota raruak eingo zittuan...

- Buo, enee!! Bueno, bueno!

- Argi ibili bihar...

- Nemesion “Sagar ustela”. Harekin zenbat bider jokatu geuen hor plazan...!

- Orduan, baloiak zer, ez zeren edo...?

- Baloiak ez eren!

- ... edo dirurik ez baloiak erosteko edo...?

- Ez euen hemen, ez euen dendarik horrek erosteko. Horrek erosteko jua bihar ziñan, ba, zera, Gasteizera edo...

- Bai, pixkat kapitalera edo holako...

- Bai, bai, bai. Eta gero, ba, ez dakit, dirurik be ez euen erosteko. Bueno, beste gauza batzuk erosten zien, baiña, ez dakit... ez zan heltzen horra, ez dakit zeatik.

5. Pilotarako zaletasun handia

- **Erref:** ARE-018/006
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotalekua nolakoa zen. Pilotarako zaletasun handia ume, gazte zein nagusien artean.

Transkripzioa

- Fubolian plazan eitten zenduen baiña gero pelotara pelotalekuan?
- Bai, pelotalekuan.

-Ta zelakua zan?
 - Pelotalekua, ba, zera...
 - Haundixa, edo...?
 - Bai, eukiko auen sei, zazpi, zortzi... beratzki edo hamar kuadro, bai, alde bat, zera, horma bi bakarrik zien, frontala eta "lateral", eta laterala heltzen zan trena pasatzen zan lekura, trena pasatzen zan hemetik eta han euen horma txiki bat, bai, eta eukan beratzki-hamar kuadro, beratzki-hamar kuadro izango zien, bai.
 - Nehikua, ez?
 - Bai, bai, nehikua, bueno. Ba ... itten euen batzuk aurreko horman, beste batzuk erdixan eta beste batzuk behian, atzian.
 - Orduan konpontzen ziñazien, gaiñera, danok batera jolasteko. Eta ze ibiltzen ziñazien, gaztiak bakarrik? Edo umiak pelotan? Edo jente nausixa be ibiltzen zan?
 - Ba, jente nagusixa etorten zan guk alde indda gero, osea, jente nausixa etorten zan, ba, zazpirak inguruan-edo, eta hantxe [joketan auen] eurak be.
 - Zeuek bialdu ta...?
 - A, bai, bai, ordurako gu... ba! kantsauta [gengozan] .
 - Orduan afiziñua zeuan pelotarako?
 - Bai, bai, hemen egunero itten zan pelotan. Egunero.

6. Futbola Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-018/007
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

Laburpena:

Club Zaraia edo Club Zaraiamendi (?), Aretxabaletan egon zen lehen futbol taldea. Futbol-zelaia non zegoen 1930 urte inguruan. 1950 inguruan futbol-zelai berria egin zen, baina 1954 urte aldera berriz tokiz aldatu zuten. Aretxabaletako industriak. Berria egin arte, Aretxabaletako futbol taldeak Arrasaten jokatzen zituen partiduak.

Transkripzioa

- Eta ez dakit, futbola esan dozu, gerora futbol talderik-edo egon zan hemen?
 - Bai, Zaraiamendi euen izena, Club Zaraiamendi. Club Zaraia, Club Zaraia uste dot zala. Zaraiamendi ez, Zaraia. Ta futbol kanpo bat euan, oin e, hau industrialdea badau ba, han? Hemetik Eskoriatzara goiazela, industrialde bat, ez dakit ze industria dauen han, bueno, bastante industria dauz han. Hortxe euen, han euen futbol kanpua. Akordetan naz, behin bakarrik egonda nenguen, bueno, jolasten bai baiña, partido bat behin, karnabaletan ein zan partido bat, eta ez dakit nik zenbat urte euko nittuen nik orduen, bost urte-edo, lau-bost urte-edo, hor egon nintzan begira, eske nere osaba batek [jokaketa] auen, eta hantxe begira egon nitzan. Danok juan giñan, karnabalen [...] ze egun zan ta txistuakin ta [...] futbolian ein auen ta, gero harrezkero ez dot gehixau ezebe ikusi han. Ez, ya ha galdu

zan, in euen txalet bat in euen, hemen, e... Lezama euen fabrika bat, haren ugezabak bilbotarrak ziran, haren famelixiak in euen zer bat, txalet bat, hantxe.

- Futbol zelaixa zeuan tokixan?

- Bai, txalet bat in euen eta ha txaleta, txaleta, ha bota euen txaleta, oin hemen industrialdea itteko.

- Orduan, futbol zelaixa, bueno, ba...

- Bai, ta beste gero futbol zelaia, gero ez zan egon... hori izango zan ba "el año treinta" edo "veinti ocho-veinti nueve" holakon bat. Gero ez zan egon futbol zelairik.

- Eta noiz arte-edo?

- E... "el año cinquenta". In zan hor 'Tubos de Precisión' dau zera, taller bat, fabrika bat, hantxe, haretxen aurrekaldian. Oin, e... lehengo kuartela badakizu nun dauen, lehengo kuartela? Kuartel... hor, e... zer bat, etxe haundi bat da, harritzua, hor behealdian dauena, ba, hantxe. Oin, e, zera, industria bat dau eta dau, zera, horma bat, gero ermita bat dau han, Santutxo, badakizu nun dauen Santutxo ermitatxo bat? Ba, haraiñotxe heltzen zan futbol kanpua ixa eta hor in zan "el año cinquenta". Baiña "el año cinquenta y cuatro", hor euen lehen fabrika bat egondakua, Zerrajerakua, Mondraueko Zerrajerakua, baiña euen "en desuso", eta "el año cinquenta y dos ó cinquenta y cuatro" edo izengo zan, e, martxan ifiñi auen [barriro be], Eibarko Beistegik eta Union Zerrajerak ein auen soziedade bat 'Tubos de Precisión' eta martxan jarri auen. Eta orduan, zera, futbol kanpua, ba, desagertu ein zan. Ez eukan errentia, errentia eukan eztakit, hamar, eta... bost pezeta edo, "una renta simbólica" zan. Bai. Osea, Aretxabaletako UDA zan, zera, Deportivo UDA, [ha] ez zan propietarixua futbol kanpuana. Eukan errenta...

- Bai, oseake, terrenuak fabrikianak zian eta orduan...

- Bai, bai, fabrikianak zien ta "una renta simbólica" eukan. Eta, klaro, eurak ekin zienian hori industriari [...], bueno... Ta orduan, e, Aretxabaletak ya ekipua baeukan, eta juaten zan, ba, jokutzen, ba, Mondrauera. Bai.

- Orduan, entrenamentuak eta dana han eitten zittuan?

- Bai, bai, bai, hori beste barrixoi in arte.

7. Futbolerako zaletasun handia gazteen artean

- **Erref:** ARE-018/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Zaletu asko herri batetik bestera futbol taldea animatzera. Tren espezialean joaten ziren batzuetan. Zaletasun handia zegoen. Neska ugari zegoen zaletuen artean.

Transkripzioa

-Jentia joaten zan inguruko herrixetara ta ekipua animatzera?

-Bai, bueno! Orduan trena be baeuan. Akordetan naz behin, fan giñan Bergarara; tren espeziala, gaiñera, Bergarara. Zan partido bat, final bat edo ez dakit zer zan, Oñatin kontra edo, ez dakit, holakon bat zan, eta tren

espeziala jarri euen, eta fan giñen trenien danok.

-Anbientia orduan?

-Bai, bai.

-Eta egoten zan herrixen artian pikerik? Oñatikuen kontra jokatu bihar dou, eta...

-Bueno, bueno... Orduan, ni ez naz faten oin fubolera, aspaldian ez naz, hogei urte honetan ni ez naz faten fubolera; baiña lehenao, lehenao faten zan jente asko, oin ez dakit zenbat faten dian, zelan ez nazen faten, baiña lehenao jente asko faten zan fubolera. Ta gaiñera, orduen ez auen, e, fubola zan espektakulo bat, gehixao espektakuloik ez auen. Klaro, telebisiñua bai, oin be ifintzen dozu eta..., baiña orduen ez auen telebisiñoik eta prozesiñoik eta; eta fubola zan, buenoo!

-Eta neskak joaten zien ikustera?

-Baitta. Hemen dago argazki bat... [...]

-Jente asko, e. Hau abadia-edo izango da?

-Abadia, bai. Arkarazoko..., ez, Arientzako abadia. Hemen beste abade bat.

-Jente asko.

-Beitu. Neure arreba bat.

-A bai, e? Kasualidadia.

8. Durana kalea

- **Erref:** ARE-018/015
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Durana kalean zeuden dendak... Pedro Lasagabaster, "Kukuena". Gaur egun Gurea taberna dagoen tokian (ikus mapan) bizargina zegoen, etaabarketagilea ere bazen: kalean bertan lan egiten zuen. Taberna; tela-denda... Sindikatu baten egoitza ere bazegoen kale hartan. Marrazketa linealeko klaseak ematen zituzten bertan.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu zu jaio ziñan kale hori ez dala asko aldatu. Akordatzan jatzu ze denda zeren?

-Gure azpixon euen, hor badago dendioi hainbeste saltzen dauena, hor euen denda bat, baiña zan dendia saltzen euena janarixak eta gauza asko, bastante gauza. Eta Kukuena, Kuku. Kukuena. Oin Kukuena Mondrauen dao, denda bat, Lasagabaster, ba haxe zan. Lasagabaster. Horren aittejaunak eukan hemen dendia. Pedro Lasagabaster, Kuku. Bai. Kukuena zan denda, e, bueno, herri guztirako dendia. Kukuenera erosten; oin faten da ba Eroskira, ba lehen Kukuenera.

-Danetik zeuan?

-Bai, bai, danetik.

-Eta beste dendarik bazeuan? Egoten zan baten bat alpargatak egiten?

-Bai. Gero abarketak eitten zittuen, barberixa bat euen, Gurea. Bada ba oiñ Bar Gurea?, ba hantxe euen barberixia. Eta harek eitten euen aparkatak.

-Denpora libria zeukanian?

-Bai, eitten euen kordelak, sokiak..., oiñ badau ba kalia arbola-illera bat, ba handik etxia dauen bittartian, han itten euen sokiak trentzau, aparkatan azpiza eitteko, zorua eitteko. Soka bat ifiñi eta tarraun, tarraun, holako makilla zera, bueltaka-bueltaka trenzau eiten zan, eta buelta-buelta...; aparkaterua.

-Orduan kalia bertan eitten zeban lana?

-Bai, bai.

-Eta zuek ikusi eitten zenduen?

-Bai, bai. Eta gero sokiori eitten zan zorua eitteko. Eta gero bestie eurak etxian, tabernan; oiñ taberna dauan lekuan.

-Eta bestela barberixia zan?

-Bai, barberixie. Eta gero euen han alde baten tabernia. Rokena, "de Roke", Roke Agirre. Tabernia. Eta honutza gatzela euen denda bat eta holako gauzak saltzen zittuena, bera ezkondu zan Oñatiko batekin eta Oñatira fan zien, gerra ostien Oñatira fan zien gero. Eta gero honutza euen sindikato bat, sindikato obrero-ero.

-SOV edo?

-Euskaldunena zan.

-Sindikato de Obreros Vascos, gero ELA izango zana?

-Bai, bai. Gero ELA izen dana, hoixe.

-Eta zer zeuken, lokala?

-Bai. Eta horra gu mutikotan faten giñenien, emuten zittuen klasiak "de dibujo lineal".

-Bertan?

-Bai, euen delineante bat, hemen Lezama y Compañía, delineantia, eta harek emuten euen klasiak dibujo linealekuak. Illunkaran faten giñen eta han egoten giñen ordubete ero. Puxkat Geometria-ta; orduen guk hamar, zortzi-beratzi urte eukiko gittuen.

-Horrek zer zien. Klase partikularren moduan? Berari pagau ein bihar jakon?

-Ez, etzan..., sindikatuen, afiliaren semiei. Hortarako aitta sindikatuen egon bihe zan.

9. Herriko eskola, Viteri fundazioko eskola

- **Erref:** ARE-018/017
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Eskola kontuak. Viteri fundazioko eskola. Arrasatearra zen bera, eta diru asko utzi zuen herri askotan eskolak egiteko, besteak beste. Mutilak eta neskak banatuta egoten ziren. Irakasleak zeintzuk izan ziren; klaseak erdaraz izaten ziren. Batzokiak eskola txiki bat antolatu zuen, eta asteen bi edo hiru bider bertara joaten ziren kantak ikastera...

Transkripzioa

-Eskolara nora joan ziñen?

-Honaxe.

-Zenbat urtekin hasten zan eskolara joaten?
 -Bost urtekin ero.
 -Honek zer zien, herriko eskolak.
 -Herrikuek, bai. Honek zien "de la Fundación Viteri".
 -Badakizu zein zan Viteri hori?
 -Viteri, mondrauetarren bat.
 -Honek diru asko zeukan, ezta?
 -Bai, bai. Honek eukan eindda, ni akordetan nazenak, Mondrauen be bai, eskolak Mondrauen, Aretxabaletan, Irunen be bai, Donostian be uste dot baietz; ha izan zan, nunbaitten agertuko da hori, inportantia.
 -Herrixan alde?
 -Bai, bai. Ein zittuen oso obra haundixak. Hemen enziklopedian agertuko da hori, gura bozu ekarrikotsut.
 -Keba, lasai. Orduan herriko eskolan, mutillak alde batetik, neska bestetik, ala danak batera ibiltzen zinaten?
 -Ez. Aparte. Eozen bost klase-ero. Bat, bi, hiru, lau, bost. Bost klase-ero baeuzen; eta aparte eoten zien, neska-mutillak aparte.
 -Eta zuri akortzen jatzu zure maistrua edo profesoria zein izan zan?
 -Bai. Lelengo doña Pilar Usandizaga zan, sekretarixuan alabia zan, sekretarixua, aiuntamentuko sekretarixuan alabia. Gero, Don Santiago Ondarra, urte askuan izandakua maixo. Eta gero Don Benito.
 -Eta zelakuak zian? Askok ikasi zenduen?
 -Bai, ona, e. Puxkat autoritariua zan Don Santiago Ondarra. Puxkat seixuaua, eta holako, e... Baiña Don Benito akordetan naz, hori eztakit nundik etorri zan, kanpokuak zian, Zaragoza aldekuak ero Logroño aldekuak, kanpokuak zien; bera, emaztia be maistrua zan, bixak euzen kolokauta, bai. Eta harekin, nik uste dot denpora gehixen haretxekin ein neuela, don Benitokin. Don Benito Alonso; gaiñera oso ona zan maistrue. Eta ez auen, lau gauza bakarrik erakusten auen: Aritmetika, Geometria, Geografia eta Gramatika.
 -Ez gitxi. Ondo ikasi ezkerro emoten zebana.
 -Lau gauza. Eta nik betik urten arte haretxekin egon nitzen.
 -Esan dozu bat kanpotarra zala, baiña sekretarixuan alabia haura euskalduna izango zan.
 -Bai.
 -Harekin euskeraz emuten ziñuen?
 -Ez, dana erderaz eitten zan. Euskeraz gero hemen batzokixak eiñ euen, ikastolatxo bat jarri euen; baiña aparte, hemendik juaten giñen astian bi bider ero hiru bider faten giñen han ikastolara. Ikastola txiki bat zan, kantuan-eta itten giñuen.
 -Umia ziñanian, baiña?
 -Bai, bai.

10. Eskola kontuak

- **Erref:** ARE-018/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak. Zer ikasten zuten; ordutegia. Larunbatetan ere klaseak izaten zituzten, baina ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Jolas-ordua.

Transkripzioa

-Esaten dozu klasiak eta erderaz izaten ziela. Baiña danetik ikasten zenduen: Geografia...

-Bai, gauza laurok, e: Aritmetika, Geometria, Geografia ta Gramatika.

-Eta esan dozu bat bai zala nahiko autoritarixua edo? Zigorrek eta kastiguak eukitzen zenduezen?

-Nik ez neban euki behin bez.

-Zintzua izango zifan zu.

-Bueno, gero harrezkero egon dira beste holako astokillo batzuk.

-Orduan zuriak nahiko...

-Bai, ba, bai.

-Klasiak eta ze izaten zien goixez, atsaldez?

-Goizian beratziretatik hamabitara. Eta gero, ez dakit ze ordu... ordu bi terdietatik, hiruretatik lau terdietara-edo.

-Eta zapatuan klasiak eukitzen zenduezen?

-Bai. Eguenien atsaldian ez. Eguen atsaldia jai. Gero zapatuen eskolara. Eguen atsaldie izeten zan, bueno!

-Eta hor egongo zan jolas-ordu bat edo ez? Jolasteko denboratxo bat.

-Bai. Beratziretan eitten geuen, beatzik eta hamarrak arte ordubeteko klase bat; eta gero ordu erdi, zera, "recreo"; eta gero hamabixak arte ba...

-Rekreuan be orduan be ez zifazen juntatzen neskekin?

-Ez, ez, ez. Ordu hortan, e, neskak euren jokuak eitten euen, sokaz saltoka edo gure dana ez dakit; eta guk fubolien-edo, pelotan-edo. Ez gifan, neskatiillakin ez gifan juntatzen, ezta bueno. Ez dakit. Gaiñera, ez dakit, normala uste dot zala.

-Herri guztietan halan izan zan, itxuria.

-Bai.

11. Errepublika garaia; 1934ko iraultza

- **Erref:** ARE-018/019
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika garaian eskolan egon ziren aldaketak. Gurutzeak kendu ziren... 1934ko iraultza Aretxabaletan. Bando bat egin zen eta bertan zer esaten zen gutxi gorabehera. Arrasaten istiluak egon ziren. Militarrek Arrasate eta Eibarrera.

Transkripzioa

-Zuk goguan daukazu Errepublika denporan, treinta y unuan, eskoletan-eta leku batzuetan kruzifijuak kendu ziela?

-Bai. Kendu zien.

-Kendu ein zien, hemen be bai?

-Horrek kendu ein zian. Lehenao baeuen klasian kurutzia, eta horrek kendu zian el año treinta y uno.

-Orduan gogoratzen dozu hori?

-Bai, bai.

-Eta errepublikian inguruan zeoze gogoratzen dozue, edo etxian entzunda,

ba "Eibar aldian gorrixak eztakit zer..."

-Hori zan "La revolución de octubre", treinta y cuatro, bai. Hemen etzan egon gauza haundirik. Goizien emuten euen bando bat, "El Comité de la Revolución", eta esan auen: "Se prohibía juntarse más de tres personas...", horrek izen bat dauko, eta erretirateko, eztakitt ze ordutan erretirateko...

-"Toque de queda" eta guzti?

-"Toque de queda", bai. Baiña egun baten bakarrik izen zan, hurrengoko egunien bukatu zan. Hurrengoko egunian ero bertan egunian. Gu, akordetan naz juan giñala mendira, mendira; bueno, hemen reboluziñua dau, hau eta bestia, eta aittakin-eta senide batzukin juan giñan zera, Bolibar aldera. Mendira juan giñen. Eta beruzkotan etorri zien autobus batzuk soldauakin, Eibarrera oiazen (?), baiña Eibarrera juateko Mondrauetik pasau zienien, ikusi euen zerbait auela, eta geratu zien hor, eta Mondraueko rebuluziñuoi geratu zan, eta batzuk juan zien Eibarrera, eta orduan akabau zan.

12. Batzoki zaharra; Kurutzeberriko gurutzea

- **Erref:** ARE-018/022
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Batzokia Aretxabaletan; non zegoen, zer antolatzen zen. Poxpolinak. Nortzuk izaten ziren dantzak erakusten ibiltzen zirenak. Kurutzeberriko gurutzea: nork diseinatu zuen, non montatu zen, nola...

Transkripzioa

-Eta bestela batzokixak lokala nun zekan? Gogoan dakezu?

-Lokala hementxe, plazako eskillarak; hemendikaldekuek ez, bestekaldekuek. Eta hortxe euen, lenengo etxian, bai, hortxe, bigarren pisua.

-Eta ze zittuen han ofiziñak...?

-Ofiziñak be bai ta...

-Beste zeozer eitten zan? Ez dakit, herri batzutan kontatzen dabe teatruak itten ziala...

-Ez. Hemen oso lokal txikiña zan.

-Edo organizatzen zittuela dantzak edo pospoliñak?

-Hori baeuen, bai. Neu izen nintzan dantzari, eta bai. Eta neure arrebía be bai ta.

-Eta halan deitzen ziran, pospoliñak?

-Bai. Orduen nik eukiko nittuen beatzi urte edo; zortzi-beatzi urte. Eta jaixetan-ta itten gittuen dantzak.

-Eta zeñiek erakusten zittuen guzti horrek?

-Haxe bilbotarra, delineantia, esan dotsut emuten ebela klasiak dibujukuak.

-Lezamako delineantia?

-Bai.

-Horrek?

-Bai. Horrek eta gero hemen txistularixak be bai, Iturbek.

-Orduan bixak izaten zian?

-Bai, horrek izeten zien dantzak... Eta hori Bilbokua zan, Aznar zan hori, Bilbokua zan eta handik Bilbotik lehen be ibilitta euen nunbaiten hori be, dantzatan, eta handik ekarten zittuen hau hola, eta bestia eta, hemendik hau eta zera.

-Eta bera hemen bizi zan?

-Bai, hemen bizi zan, bai.

-Persona aktibua orduan?

-Bai, bai. Harek zera ein euen, beitu Kurutzeberriko kurtzia, ha bere proiektua zan, eta Aramaixon beste kurutze bat, Tellamendin, ha be bai. Haik kuruziak ein ziran, Lezaman egitten zittuen anguluak, "angulo en metálico", eta anguluakin eindda dao horiek danok. Eta proiektua zan Aznarrena. Gero ha ein zan, ha montau zan, uste dot, Beroaneko fabrikan, Arrueneko fabrikan, Beroan. Hori ein zan "el año veintiocho". Akordetan naz, ni ez nintzan jua, lau urte neukan. Ni ez nintzan jua, baiña ama eta aitta joan ziran, ni geratu nintzan, amamakin geratu giñan gu etxian. Lau urtekin, orduen lau urtekin pentsau be ez juateik Kurutzeberrira.

-Orduan gaiñera oiñez joan bihar zan ez?

-Bai, bai. Dana oiñez. Eta kurutzie jaso euen, ez dakit, lau zera, pareja, idi parejak. Gero fotografia [...].

-Eta orduan egun espeziala izango zan, ez?

-Bai, bai. Mezia-ta erromerixia-ta danak egon zian. Oin be juaten gara, urtero juaten gara, setienbrian bigarren domekan juaten gara. Eitten da mezia emun eta gero piskolabis ta gero...

-Orduan mantentzen da ohitturia?

-Bai, bai.

13. Politika giroa Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-018/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

<p>Sozialista, errepublikazaleak Aretxabaletan. Kanpotik etorritako jende gehiena, errepublikazalea. Centro Republicanoa non egon zen. CNT sindikatua. Politika giroa Aretxabaletan.</p>

Transkripzioa

- Eta hemen sozialistak edo republikanuak-eta?

- Bai, republikanuak [...]. Hemen kanpoko jentia gehixena republikanua zan, bai. Hemen etorri zan jente asko etorri zan lanera, eta hareik kanpotarrak gehixenak republikanuak zian. Republikanuak hementxe euken zentrua, hementxe eleiza aurrekaldian, zea aurrekaldian, hor dau joyería-edo, lehen euen joierixa bat hemen, ba hortxe, lelengo pisuan "Centro Republicano". Eta hor beherao, puxkat beherao, "Sindicato de la CNT".

- Sozialistek-eta bazeken lokalik edo...?

- Sozialistak ez, baiña republikanuak bai, republikanuak hor juntetan zian.

- Eta karlistek lokalik edo?
- Ez, ez euen lokalik. Ez naz akordetan lokalik hola, e. Baiño behin akordetan naz zerbait euki euela hementxe, hor karnizerixa bat dau hor, Etxabena, hortxen goixan zerbait egon zala bai. Baiña bestela lokalik ez euen.
- Eta euren artian-eta pikerik-eta egoten zan, ez dakit, politika kontuan-eta orduan gerra aurretik?
- Ez, ez, ez.
- "O sea que" nahiko trankilla zan.
- Hemen sekula, e...[...]
- Orduan gerora konplikau zan gauzia?
- Bai, gero bai. Baiña gerra aurrian ez euen holako gauza haundirik, ez.

14. Garaiko aldizkariak

- **Erref:** ARE-018/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

<p>Etxean hartzen zituzten aldizkariak: El Diario Vasco, Euzkadi...</p>

Transkripzioa

- Esan dozu Jesus Peñak Euzkadi-n eta idazten zebala; zure aittak-eta periodikurik hartzen zebeñ?
- Bai. Gure etxien bi.
- Bi?
- Bai. Gure etxien bizi zien nire tio bi, gure aitta-ta; baiña etzan egunero hartzen periodikorik. Bat bai. El Diario Vasco uste dot betik ikusi dotela. Eta gero "Euzkadi"-tta noizian behin. Gehixao ez, horretzek periodiko bixok bakarrik. Eta egunero be ez. Bat bai, el Diario Vasco hori egunero, hori bai, zelan nire lehengusuak zela euen fabrikia, hara eruaten zittuan notiziak, eta gauza asko ekarten ebanak periodikuak, ba jakitteko.
- Baiña etxe guztietan etzan hartuko periodikorik.
- Ez, ez. Bai zera.

15. Garraioak: autoak, gurdiak, dilijentzia

- **Erref:** ARE-018/027
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Lehenengo autoak Aretxabaletan. Autobusa; kamioia. Taxiak. Zaldiak tiratutako gurdiak. Dilijentziak. Gatzagara igotzeko idi pareak jartzen zitzaion dilijentziari aurrean.</p>

Transkripzioa

-Lehen esan dozu kaliak nahiko libre egoten ziala.

-Bai.

-Auto gutxi.

-Gutxi. Oso gutxi.

-Gogoratzen dozu lehenengo autua? Esan dozu hiru gogoratzen dozuzela.

-Bai. Autobusak bazeozen gozian zortzi t´erdietan gorutza; eta gero atsaldien boste t´erdietan beherutza, Eibarrerutz. Eta gero beste kamioi bat, hoixe Bergarako kamioi hori, eta beste hiru edo lau automoi pasatzen ziren hemetik, gehixao ez.

-Eta hemen herrixan zeiniek zeukan automobilla?

-Ba egongo ziran bost edo sei. Medikak-eta, medikak, gure etxien be bat euen; bueno, fabrikakue, fabrikakue zan, eta Beroanien be bai, Beroanien pare bat edo, eta gero don Antonio, beste batek be bai, gero taxi bi, bata Paulotxona eta bestia, e..., taxi bi; beste hiru, bost kotxe edo xei. A, Romalduena beste fabrika bat botak-eta, alpargatak eta eitten zittuena..., alpargatak ez. Sandaliak-eta botak-eta eitten zittuena, horrek be bai, horrek be baeuken kotxie. Bat, bi, hiru, lau, bost, xei, zazpi..., hamar baiño gutxiago, e, segurutik.

-Eta esan dozu taxisak.

-Ni akordetan naz behin jua giñela Mondrauera San Juanetan suzurruberak ikusten. Eukiko nittuen nik lau urte-edo; jua giñan Paulotxokin taxisian, bai. Oso automobil polit bat eukan. Eske Paulotxo izen zan txofer Otazuna. Otazu zan personaje haundi bat; hor aiuntamentuan badau ba, horkotxia, horkotxe emakumiekin ezkondu zan. Eta hori izen zan haren txofer. Bitorixan bizi ziren horreik, eta haren txoferra zan, eta harek itxi auenien txofertzia, harek emun utsen automoi honi.

-Eta gero berak taxi moduan erabiltzen zeban?

-Bai. Eta gero beste bat, taxi bat euen Gorritxo. Eta jua giñen gu, lau urte neukela, jua giñen Mondrauera taxisian; eta ikusi gittuen suzurruberok eta horreik danok, eta bueltan etorri giñen kotxian, "coche de caballos", e. -Hori esan bihar notsun. Aurretik dilijentziak edo?

-Bai. Zaldixan kotxian etorri giñan. Hemen aurretik diligentzia; dilijentzia uste dot pasetan zala Bergaratik Eibarrera-edo. Nik amari entzunda daukat, orduen egon zan hemen sasoi baten, bautizuetan-eta zelan botaten dien karameluak-eta, ez dakitzu zela botaten ziren, dirue be bai. Debekatuta egon zan sasoi baten.

-Botatzia?

-Bai. Eske behin eleza aurrian, hortxe botaten ebitzela, pasau zan dilijentzia eta mutiko edo neskatillan bat harripau euen eta hil ein zan. Eta orduan debekatuta egon zan sasoi askuan.

-Oso memorixa ona daukazu!

-Eta hori diligentziari jua zan zerera, Maulandara, Gatzagara, eta han Maulanda euzen idi pare bi, eta hartzen zittuen eta igoten zittuen idiekin, idi pare bikin, Gatzako aldatza goraiño.

-Pixua zekenian edo?

-Ez, ez. Normal. Bakitzu ze aldatza dan ha! Zaldiekin ezin. Eta gaiñera dauko, e, lehenengo Maulandatik urten eta dau hirurehun metro, laurehun metro akaso, eta gero bueltatxo bat dao.

16. Maulandako azkenengo idiak

- **Erref:** ARE-019/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Marulanda auzoan azkenengo idiak izan zituen baserritarra ezagutu zuen.

Transkripzioa

-Nik ezautu nauen azkenengo irixak euki euen.
-Maulandan?
-Maulandan, bai. Deiketan utsen "Apolin".
-Beranak zien irixak?
-Bai. Eztakitt bixak zien, bat behintzet bai. Apolinar. Eta Apolin. Ha ezautu neuen ia agure zaharra zanerako; orduen ez auen diligentziarik, diligentziarik ez euen ia. Baiña nire aitta zan Maulandakua, eta berak esan usten zelan itten zan, eta horretxegatik dakit nik horrek kontuok, Maulandakua zelan zan aitte ba, harek kontautakua.

17. Jatorriaren inguruko zenbait datu

- **Erref:** ARE-019/003
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Marulandan auzo-eskola zegoen garai batean eta aitak bertan ikasi zuen. Amama inude egon zen Madrilen. Aitajaunak Bizkaia aldean jardun zuen meatzeetan lanean.

Transkripzioa

-Eskolia euan Maulandan. Bakitzu nun dauan Maulanda?
-Bai.
Tabernia bakitzu, taberna bat?
-Bai.
-Ba tabernia baiño lehenao dau etxetxo bat, etxe bat, han hartzen dan bidia Mariñerako; ba ha etxia zan eskolia. Ni akordetan nai eskolia, eta orduan eskolan erderaz erakusten auen, eta akordetan naz, aittak euen letra bat oso politta, nik baiñok askoz polittaua. Eta berak esaten euen hantxe eskolan ikasi auela leidu-ta, eskribidu-ta, danak-eta.
-Eta amak eskolia zeukan?
-Amak hementxe eskolan.
-Bazekixen irakurtzen-eta?
-Bai, bai, bai. Amamak ez baiña.
-Zenbat eta atzerago joan...

-Amamak ez. Amama gaiñera orduen iñuda egon zan Madrillen. Eta ikasi auen zerbaitt erderaz-ta.

-Joan aurretik ez eban jakingo ezer?

-Etxanen bizi zan, Aramaixon, Etxanen. Etxanetik juan zan, orduan etortzen zien ba, oin dauzen moduen, oin be badauz agenziak topetan dittuenak hau eta bestiak, langilliak, inginierruak eta bestiak; eta orduen iñudak be topetan zittuen.

-A bai?

-Bai ba.

-Hori esan bihar notsun, lagunuen edo ezagunuen baten bittartez edo, ze Madrillera joatia ez da...

-Holaxe.

-Eta orduan baten bat egoten zan jentia topatzen?

-Bai.

-Eta Madriletik, hemengo jentia nahi izaten zebeñ? Ze gertuago be eukiko zittuen andrak.

-Eztakitt nik, baiña harrezkero be bai, famia euken gallegak be bai, eta hemenguak be bai. Itxuria dauanez, esnia zan hobia-edo.

-Eta orduan Madrillera beste ume bat haztera?

-Bai, eta eztakitt zenbat denpora ein euen, urte bi ero. Eta berak kontetan euen, orduan denporan Alfonso doce-ero, Alfonso docen denporan.

-Bai, ze amama gaztia izateko... Historixak be eukiko zittuan, anekdotak eta.

-Bai, kantuak-eta: "Dónde vas Alfonso doce, -kantuak- dónde vas triste de mí".

-Eta honek relazionatzen zien, hemendik juandako iñudiak-edo?

-Gutxi. Gutxi.

-Umiak zaindu bihar, eta ez eben denpora libre asko eukiko.

-Ez, ez, ez.

-Baiña zelako esperientzia.

-Hori amama, eta aittaitta egon zan zerian, Somorrostro aldian, Ortuella, Gallarta, miñetan, transportista. Ganauak hartu eta zerian, burdixan, materixala, minerala, minetan; han ibilli zan lanian.

-Aittajauna nungua zan?

-Aittajauna zan Eskoriatzakua, Bolibarkua. Aizorrotz bakizu, haretxen azpikua

18. Aretxabaletako bainuetxea; gerra garaiko hainbat azalpen

- **Erref:** ARE-019/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

13 urte ingururekin, Bilbora joan zen ikastera. Gerra garaiko kontuak. Aretxabaletako bainuetxearen inguruko zenbait azalpen ematen ditu; maristen ikastetxea jarri zuten gerora bertan. Gudarien kuartela; "Los Dragones", Arrasaten sortutako batailoia.

Transkripzioa

-Asko ibilittako jentia.
-Bai, bai.
-Gerora zeu be Bilbora joan ziñan. Zenbat urtekin izan zan hori?
-Hamahiru urtekin edo.
-Behin eskolia amaittu eta Bilbora?
-Senidak han neukan eta. Neure etxien letxe igual-igual.
-Hori noiz izan zan, gerria hasi eta gero, ezta?
-"El año treinta y ocho" zan, gerrie baeuen, bai.
-Gogoratzen dozu gerria hasi zanian etxian zer esaten zeбен, soldaduak bazetozela, edo...
-Hemen, gerria ekin zanian hemen, gudarixak-eta juntau ziran eta ein euen kuartela zerian, lehenau kolegixua euen lekuan, Maristetan, oin dauen "complejo industrial", eta hotela-eta. barri bat ein daue hor, Eskoriatzara bidian; lehen auen hor lehenau izendako baiñuetxe bat; baiñuetxia jausi zan hil zalako hor prinzesa bat, "Princesa Pilar, hermana de Alfonso XII". Hil zan ha, eta jentiak, ez dakitzu, "que igual te da mala suerte" eta. Eta gero etorri zien maristak. Eta jarri euen hor kolegixo bat maristak, eta egon zien urte askuan maristak. Eta maristak juan zianian ein zan oin dauen kolegixua. Bueno, oin kolegixua goixan dau, baiña lenengo behian ein zan, eta gero beheko [...] bota zian, eta gero oin ein daue "complejo industrial".
-Eta han egin zeбен kuartela?
-Bai. Eta bestiek, republikanuek-eta, horrek ein auen mondrauetarrekin-eta...
-Batailloiren bat?
-Bai. "Los Dragones. Mondragón, mondragones". Eta horrek kuartela, hemen ez euen kuartelik.
-Mondragoikuekin batera?
-Bai. Hor Atxabaleta eta Eskoriatza mugako... gudarixak hor eren.
-Hor juntatzen zien?
-Bai, hor Eskoriatzan, eskoletan, kartzelia egon zan.

19. Gerrako frontea Aretxabaleta inguruan

- **Erref:** ARE-019/006
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Soldaduak eta erreketek Aretxabaletan. Frontea inguruan gelditu zen; alderdi bakoitza non egon zen gordeta. Frontea bertan egon zen bitartean, herriko bizimodua erabat aldatu zen; jende asko baserri aldera joan zen. Noiz hasi zen egoera aldatzen; frontea aurrera mugitzen...

Transkripzioa

-Herrixak hartuta geratu zienian, gauzak asko aldatuko ziren, ezta?
-Bueno!
-Kartzelia leku baten, eskolak be biharbada geratu egingo zien?
-Geratu ein zien, bai, bai. Eta hemen etorri zan, soldaduak egon zien, reketiak, hemetxe eskoletan, hemen ez euen kuartelik-eta, kuartela hor

behian euen, ha guardazibillena zan; eta hemen geratu zan zera, frentia. Hemen geukan hor Murumendin, hor euzen zerak, gorrixak, esate baterako; hortxe euzen. Eta beherau be bai. Untzillan be bai, eta ixa, hemen esate jakona Artebixa, oin eztakit zela deiketan jakon, Artebixa; eta hemen setienbretik Santa Luzia egunerarte egon zian hor. Guk lanian eitten geuen, eta langille bat hil zan tiro batekin, hortitxik jaurtitta, oso urrian euzen.

-Orduan fabrikia ez zan geratu.

-Ez.

-Lanian jarraitu zenduen.

-Bai. Zelabaitt. Gero geratu zan.

-Hori lelengoko hori eztakitt zenbat denpora izengo zan. Setienbre, oktubre, nobienbre, diciembre... Eta eneron ekin zan bonbardeo bat; bonbardeau euen Atxabaleta, eta ixa egunero bobardeaten euen, egun bittik behin ero. Eta orduen gu jua giñen Koruetara; jente asko jua zan hemendik, ixa egunero bonbardeaten euen. Eta orduen fabrikie, hiru ero lau kaiñonazo sartu zittuen, eta orduen itxi ein zan.

-Kaiñonazuak eta bonbardeuak zeñen aldetik, nazionalak?

-Ez.

-Gorrixak?

-Bai. Hemen soldauak euzen Apotzan; Apotza baiño goratxua dao menditxo bat, Lata (?), eta aurrerau dao Asentzio, eta Asentzion gorrixak euzen eta Latan soldauak, Apotzan be bai, Untzillan gorrixak eozen, Galartzan reketiak eta aurrekaldian gorrixak. Eta Usittan reketiak eta Artian bestiak. Eta Santa Luzia egunian bota zittuen Usitta gaiñetik, horrek bota zittuen. Eske euzen, herri gaiñian euzen, eta ha kendu eiñ euen. Egon zan hortxe, konbate bat egon zan, eta orduantxe hil zien bi, gaiñera mondrauetarrak ziran.

-Orduan esan dozu jentia ihesi joan zala bonbardeuak hasi zienian?

-Bai, Koruetara eta, Azatzara eta, basarrixtara.

-Ihesi, baiña gertuan.

-Bai, bai. Kalia ez egotearren, pukat, e... Eta egon giñen, hiru hillabete ero egon giñen hor.

-Hemendik ihesi urten eta basarriren baten geratzen zan jentia?

-Bai, basarri baten.

-Basarritarrak atia zabalik jentia hartzeko?

-Bai, bai. Hemen Azatzan-eta Koruetan-eta, hor Arientzan-eta, basarri gehixen baten euan jentia, kalekua. Hori izen zan enero, febrero, marzo, hiru hillebete. Abrillian, lelengoko abrillian ekin zan ofensibia hemendik Bilbo aldera, eta orduan, e...

-Puxka bat lasaittu.

-Bai.

20. Gerra zibila Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-019/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Francok herri bat hartzen zuen bakoitzean, manifestazioak egiten ziren kaleetan. Soldaduak herrian.

Transkripzioa

-Eta zuk gogoratzen dozu nazionalak herri bat hartzen zebengan manifestaziñuak edo prozeziñuak-edo eitten zittuen? Edo banderak leihoetan ipini bihar?

-Bai. Hemen eitten zan, "La toma de Bilbao", eta raa! manifestaziñua, ra, ra, ra... Baiña banderak-eta, guk behintzet etxien banderaik ez geuen ifiñi be eitten.

-Toki batzuetan, itxuria, derrigortu egitten zebeñ. Baiña manifestaziñua?

-Bai. Bai, hori eitten zan. Eitten zan kalien goixen... eta kale barreneraiño, tras, tras, tras...! "Viva España!" eta "boo" eta. Baiña ez euen soldaurik, paisanuek zien.

-Txapel gorrixa eruan bihar izaten zeban jentia, umiak edo?

-Bai. Neuk be eruen neuen aste baten exo, baiña gehixao ez neuen eruen.

-Orduan, soldauak aurrera joan zirenan, lasai geratu zan herrixa?

-Bai. Gaiñera hemen soldauak egon ziran denpora gutxixan. Hoixe, hiru hillabete. Gehixao. Setienbrian sartu ziran, eta egon ziran abrilla arte. Maristetan-eta, hemen eskoletan-eta.

21. Gerra zibila Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-019/008
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Frontea Aretxabaleta inguruan; toponimia. Soldaduak, milizianoak. Errepublikaren aldeko soldaduen arteko deskoordinazioa.

Transkripzioa

-Aitttatu dozu toki bat, ba zela zeren frentian kolokauta, gorrixak alde baten, Asentzio, Lata... eta Usitte?

-Usitta, bai, Usitta. Usitta da auzo bat hementxe goixen dauana. Eta Usitta gaiñian euzen bestiak, gorrixak.

-Eta gorrixak, esaten dabenez, oso preparaziño gutxikin.

-Nire ustez bai.

-Arma gutxi; eurak be diziplina gutxi.

-Beitu. Preparaziño gutxi; euzen gudarixak, euzen ejército, euzen milicianos de tal, asturianuak, komunistak, eta ez zien entenditzen euren artian... Aber ze pasau zan Billarrearen? Bata bestiai joten azkenian. Bai ba.

-Ez euken ez preparaziño, ez koordinaziño?

-Koordinaziño gutxi. Egon zan "La Batalla de Villareal", joe, famosue izen zan, eta bata handik sartu biher dala, bestetik, bestiak eztakit zer, eta azkenien bata bestiai, eurak euren artian, alkarrekin.

22. Aretxabaletako bainuetxea

- **Erref:** ARE-019/009
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:25:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Aretxabaletako bainuetxeak non zeuden; garrantzi handia izan zuten garai batean. Kanpoko jende ugari etortzen zen eta herrian eragina izan zuten; "Portasol". Herriko jende askok jardun zuen bainuetxeetan lanean. Bainuetxeen beherakada noiz etorri zen; zergatik, eta abar. Santa Agedako bainuetxea.

Transkripzioa

-Esan dozu lehen gudarixak zeukela kuartela Maristetan, sasoi baten baiñuetxia izan zana. Sasoi baten pare bat baiñuetxe egon ei zan hemen.

-Bai. Hiru. Ez bi. Hori bestioi Eskoritzakua zan, Eskoritzako terrenuan dao, baiña bestela bi. Bata hemen monjetan esaten zana, eta bestia baiñuetxia deiketan jakona, oiñ dau "poligono industrial, Baiñuetxe, hortxe euen beste bat. Baiñuetxe bi eren.

-Eta esan dozun historixa hori, Pilar printzesa edo infantia hil zana, hori zer zan, Eskoriatzakua?

-Eskoriatzakua, bai.

-Baiñuetxiak inportantzia haundixa eukitzen zeban.

-Bai. Beitu, baiñuetxera jentia etorten zan, beitu, baiñuetxia zeuan han poligono industrial dauen lekuan, eta hona kamiñua etorten zan, eta han auen holako plaza bat, eta hari plaziai deiketan jaiko "Portasol", La Puertta del Sol. Eta oin Portasol deiketan jako, La puerta del sol. Madriltarrak eta ebizen asko, eta han juntetan zien, eta eurak ifiñi utsen "La Puerta del Sol".

-Orduan jente asko etortzen zan kanpotik, gehixenak zien kanpotarrak?

-Danak. Esate baterako, danak kanpotarrak zian.

-Eta horrek lan asko emongo zeban.

-Bai. Bueno, sasoi..., orduen hiru hillabete-ero eingo zittuen, uda-denporan. Gero urte guztien ez.

-Itxi egiten zan?

-Bai, bai. Orduan hemen jentia, hango langilliak, zerbitzen, danak. Eta akordetan naz "maleteros", trena, maletak hartuta, maletak erueteko, maleteruak-eta.

-Baiñuetxiak ze urte inguruan itxi zien? Derrepente danak?

-Hau, hemengua, monjak etorri zienerako uste dot itxitta euela; eta ehunda bi urte-ero dira monjak etorri zienian. Hori bestiori gerra denporan itxi zan, gerra denporan ia itxitta euen; aurreko urtian egon zan Donostiako famili bat; haretzek izan ziran, eurak bakarrik eozen. Zan bat eta emakume bi. Hiru ziran. Neska bi eta gizonezko bat.

-Orduan baiñuetxe guztia eurendako.

-Bai. Ordurako ia "en declive", ia euen.

-Zergatik hori?

-Ba beste ohitura batzuk hartu zien. Orduan hemen baiñuetxian egotia baiño hobeto zan Donostiara juatia, eta plaian-ero, beste ohitura batzuk. Eta gero, esate baterako, beste kategorixa bat euken hor Alzolan baiñuetxiak, eta Cestona-eta. Beitu, hemen beste baiñuetxe bat egon zan Santa Agedan; bakizu Santa Ageda nun dauen? Santa Agedan. Han akaau euen ministro bat-ero. Eta orduan ha be jausi zan.

23. Bainuetxeen inguruko azalpenak

- **Erref:** ARE-019/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bainuetxeen inguruko azalpenak; uren ezaugarria.

Transkripzioa

-Zer zeuan baiñuetxetan, ur espeziala?
-Bai, lurrak emuten dau, sulfuro, azufriak.
-Eta baiñuak hartzen zien?
-Baiñuek eozen, oinddio basarri batzuetan agertzen dira horko bañerak. Harrizkuak zien bañerak. Eta ni akordetan naz Mendikurtzan (?) gu egon giñenien gerra-denporan, zerian, han euken bat.
-Baiñuetxeko bañera bat?
-Bai. Eta beste baserri batzuetan be ikusi dot. Baiñuetxiak, ni akordetan naz, ni barruan egonda nenguan, baiña orduan "en declive" zan, eta euen "La sala de baños" eta "El salón de baile".
-Kategorixa haundiko jentia izengo zan, dirua eukiko zeбен. Eta erropak be diferentiak izango zian.
-Eta etortzen zien hona, eta eitten auen, pelota-partiduak eta eitten auen, eta jentia handik etortzen zan pelotan ikusten auen, Madillen ez auen pelotan eingo, baiña hemen ikusi eitten euen.

24. Bolalekua Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-019/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Bolalekua Aretxabaletan; zaletasun handia zegoen garai batean boletan egiteko. Nola jolasten zuten; posturak, eta abar.

Transkripzioa

-Lehen esan dozu bolalekua be egon zala.
-Bai.
-Eta afiziño haundixa zeuan boletan eitteko?
-Boletan? Domekero; domekero. Domeka illunkaran, akaso seietan ekin eta zortziak-beratzia arte boletan.
-Umiak?
-Ez, nausixak.
-Eta apostia?
-Apostia, bai.
-Eta zuek ikusi eitten zenduen?
-Honbre, bai. Hara faten giñen ikusten, eta "Hiru baietz", eta "Bat ezetz", eta "Baten parra bi ezetz". "Baten parra bi ezetz" esan gura dau bat bota

ezkero ez dauela irabazten iñok. Baten parra eta bi ezetz.

-Orduan kanpeonatuak egoten zien, etortzen zan kanpoko jentia boletara?

-Ez, ez, ez, hemekuak, gehixenbat hemenguak izeten zien. Gero Andramaixetan etortzen zien, oin be bai egongo da "Campeonato de bolos", oin be bai egongo da. Orduan be eitten zan Andramaixetan.

-Baiña orduan afiziño haundixa zeuan.

-Bai.

-Poliki-poliki beherakaria etorri zan?

-Ez dakit ba. Oin iñork be ez dau jokutzen.

-Igual egun seiñalauetan bai, baiña bestela?

-Soziedadiak, ez dakit zein soziedadek eitten dauela... Ointxe, beitu, asteburuan izengo da, soziedadiak dauko San Inazio patroï, dauken soziedade batek, harek eitten dau "campeonato". Baiña Lehen bai, lehen domeketan seiretan-edo faten giñen bolatokira, eta ha egoten zan, bueno!

-Lehen esan dozu Andramaixak diela hemengo jai inportantiak, baiña San Migel be bai.

-Lehenao uste dot San Migel zala; San Migel zan elixia, eta bera zan San Migel de Bedarreta; oin San Migeletan eitten da, jaixak eitten die han.

25. Musika, dantza herrian

- **Erref:** ARE-019/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika, dantza plazan. Gramola ere egon zen garai batean; gerora filarmonika hasi ziren ekartzen herrira. Aretxabaletako musika banda noiz sortu zen; honen inguruko azalpenak. Igandero egoten zen musika plazan; noiz hasi zen ohitura hori galtzen.

Transkripzioa

- Zure gazte-denporan musikia egoten zan? Dantzia egoten zan?

- Nik musikia, dantzia ezautu neuen... Txistularixa beti egoten zan, aiuntamentukua, eta gero egon zan gramola bat, gramolia.

- Hori zu umia ziñanian?

- Bai, bai. Hementxe euen gramola bat, eta gramoliakin urte askuan. Baiña kobrau eitten auen, ez dakit txakur haundixa, txakur txikixa-edo.

- Dantzan egitegatik?

- Bai. Gero egon zan filarmonikia. Eibartik, bueno, Eibarkua ez zan, gero bizi zan, Angiozarkua.

- Aranzabal? Itxua?

- Aranzabal, Itxua, bai. Harek euen konpromiso bat hemen, baiña askotan ez zan etorten, etorten zan bere anaia. Bat zan "una figura", eta bestia zan "una figura", baiña "a lo contrario". Eta jotzen auen zazpiretan ekin eta beratzia arte.

- Eta orduan zeuek dantzan egin?

- Bai, dantzan eitten geuen. Eta horren atzian (?) gero ein zan musika banda bat. Musika bandia ez dakit noiz ingo zan. "Cincuenta"... Ez dakit "cincuenta" izengo zan. Musika bandia ein zan. Eta bastante ona zan. Gero etorri ziran kanpotik be bai, etorri ziran Erriojatik, Erriojatik etorri ziran lau

ero bost. Erriojatik, euzen soldau Bitorixan, eta han bandan jotzen auen, eta lizenziau zienian, hemen biharra euen eta etorri zien hona. Hemen bizi die oin!

- Eta orduan musikia zela izaten zan, domeka guztietan ala jaiegunetan bakarrik?

- Ez, ez, ez, domeka guztietan. Eta ez dakit, hori desagertu zan "el año setenta"-edo desagertu zan.

26. Aratosteak Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-019/013
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Aratosteak Aretxabaletan; gaztetako ibilerak. Gerra garaian debekatu egin ziren aratosteak. Santa Ageda mutilak.

Transkripzioa

-Orduan Karnabalak zeletzen zien?

-Karnabalak? Enee!

-Eta disfrazau eta be bai?

-Kukumarro.

-Etxeko edozer gauza jantzitta?

-Bai, bai, bai. Edozer gauza jantzi eta ala!

-Kuadrillak eta?

-Bai, bai. Orduan izeten zan, bueno, "Santa Ageda mutillak" be baeuzen, orduen urtero Santa Ageda mutillak. Eta gero zela izeten zan Karnabalak eta Santa Ageda mutillak eta horrek inguruen zela dien danok, hor eitten zien jaixak, Karnabalak.

-Mutillak disfrazatzen ziñazien, neskak be bai?

-Bai, bai, neskak be bai.

-Orduan jai polittak izango zien.

-Bai, bueno! Desietan egoten giñen Karnabalak etortzeko. Baiña denpora guxi iraun euen, gerra-denporan hori suprimido, dana.

-Eta gerra ostian berriz hasi zan?

-Beranduau.

-Urte askuan prohibiduta egon zan?

-Bai. Hemen bakarrik ez. Gipuzkuan Tolosan bakarrik eitten ziran.

Karnabalak euzen suprimiduta, ezin zan jarri karnabalik. Baiña Tolosan jarri utsen izena "Fiestas de Primavera".

-Eta esan dozu "Santa Ageda mutillak". Horrek zer zien, kintuak?

-Bai. Baiña uste dot, hori entzunda daukat, horrek kintuak lehenau dirua batzen euela, harek gero zela soldautzara juan bihar ziran, hara diru puxkat erueteko. Oiñ ez. Oiñ tragu batzuk eiñ-eta, afari batzuk eiñ-eta.

27. Herriko jaiak

- **Erref:** ARE-019/014

- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juanetan Arrasatera joateko ohitura izaten zuten; suzko errobera. San Pedrotan berriz, Eskoriatzara joateko joera izaten zuten. Andra Marietan, jende asko etortzen zen inguruko herrietatik; gonbidautzak. "Vuelta al valle de Léniz" izena zuen txirrindulari lasterketa egiten zen.</p>

Transkripzioa

- San Juanak zelebratzen zien?
- San Juanak? Mondrauera juaten giñen San Juanetan.
- Esan dozu suzko erruberak...
- Bai suzko erruberak. Orduan suzko erruberak zien, bueno! Nik lau urte edo bost neuken orduan, eta zer zirenik be ez. Eta ikusi nittuen, eta bueno! San Juanetan juaten giñen zerera, Mondrauera; eta San Pedrotan Eskoritzara.
- Gaztetan be bai?
- Bai.
- Eta eurak etortzen zien hona?
- Bai.
- Orduan relaziñua eukitzen ziñuen inguruko herrixekin?
- Bai. Hemen Andramarixetan be Mondrauetik eta Eskoriatzatik etorten zan jentia asko. Andra Maixetan egoten zan, jente asko etorten zan hemen. Eta kanpotik. Ni akordetan naiz, nire Bilboko lehengusuak-eta etortzen zien.
- Orduan zela izaten zan, gonbidautzak-eta?
- Bai. Eta musika-bandia, Mondrauetik etortzen zan, gehixen baten Mondrauetik, eta batzuetan be bai Flandes-edo; eta Oñatitik be bai, behin edo, baiña ez dakit ze pasau zan orduan, burrukan bat egon zan, baten bati [...] apurtu utsela-edo, eta oñatiarrekin ez geuen gauza onik ein. Baiña Mondrauekin bai, jeneralmente mondrauetarrak etorten zian goxian, beratzietan, beratzi t´erdietan-edo pasakalle bat joten euen. Etortzen zien egun bi, egun bittan, hirugarrenian ez dot uste etortzen zienik. Eta gero hamarretan egoten zan meza; meza ostian "concierto", eta bazkal ostian, hiru t´erdietan-edo, beste pasakalle bat. Gero egoten zian pelota-partiduak, eta zazpiretan-edo ekitten zan dantza, hamabixak arte. Beratziretan puxkat deskantsua egoten zan afaitteko, eta gero hamabixak arte dantzia.
- Ondo, orduan?
- Ondo, ondo. Oso ondo.
- Jai konpletuak.
- Jente asko etortzen zan. Egoten zan, guk eukitten geuen moduen beste familixa askok kanpotik etorritako jentia egoten zan.
- Orduan herrixa bete-beteta.
- Bai, bai, bai. Orduen ez euen urteeraik hola, e. Horrek urteerok ekin die ointxe berrogeta hamar urte, edo gure dana.
- Autuak gero eta gehixago, eta...
- Bai. Egoten zan karrera bat ziklista, oin be egoten da, baiña orduan kategorixa haundikua.
- Izenik bazeukan kARRIERIAK?

- Bai. "Vuelta al Valle de Léniz". Hemen dauz, ni akordetan naiz danakin. Bueno, danakin ez. Hemenguekin ez, hemenguekin bai. El año treinta y dos, akordetan naiz.

- Zortzi urte.

- Bai, zortzi urte. "El año treinta y dos". Metia egon zan Banco Guipuzcoano dauen tokixan. "El año treinta y tres" Gurea parian, "el año treinta y cuatro" hemen panaderixa ondua, "el año treinta y cinco" be bai hor, hori akordetan naz; gero "el año cuarenta y tres" ez naz akordetan ondo. Juan Jose Izagirre bai, hau laguna zalako. Honeik die "de categoría nacional", Eusebio Bastida.

- Zer zien, bertakuak ala kanpokuak? Kanpotik etortzen zien?

- Hau zan Azpeitikua. Cepeda, hau zan "de la parte de Somorrostro" ingurukua; Federiko Ezkerra Sodupekua. Baiña honek die "de categoría nacional". Emiliano Alvarez, hau Beasaingua-edo zan; Lizarazu naparra; Juan Jose Izagirre, hau hemengua zan, Atxabaletakua; Exposito hau, Donostiakua; Miró, Lopetegi, Langarika Otxandixokua; honek die "de categoría nacional". Gero honek, e..., ez nintzen egon.

- Orduan buelta ziklistia egiten zan?

- Bai.

- Rekorridua zein zan?

- Ehun eta hoge kilometro-edo.

28. Txirrindularitzarako zaletasuna

- **Erref:** ARE-019/015
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Txirrindularitzarako zaletasun handia egon zen herrian garai batean. Bizikletak alkilatu egiten ziren pare bat tokitan. Orduko bizikleten inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

-Orduan ziklismorako afiziñua bazeuan hemen?

-Bai, bai. Hemen baeuzen, ziklistak-eta baeuzen hemen.

-Esan dozu batzuk, bata laguna zana, Izagirre... Eta bizikletak zuek umetan ez zenduezen eukiko?

-Bai, bizikletak guk, lantokixen euken bat.

-Fabrikan bai orduan?

-Bai, fabrikan euen. Eta gero euzen, hemen alkilerrak euzen, bizikletak alkilau eitten zittuen. Lehen esan dotsut horrek aparkatak eitten zittuena [...], horrek euken bizikletak.

-Eta orduan zela izeten zan, bizikletia alkilau egun osorako?

-Bai. Zuk norabaittera..., Debara jua bihar doula bizikletan; hartu eta "ya está". Zenbat? Pezeta bi-edo; pagau ta...

-Orduan alkilerrak. Gero jentia hasiko zan poliki-poliki bizikletak erosten...

-Alkilerrak. Gero beste alkiler bat egon zan, bi, bi egon zien. Neure lehengusu batek be jarri euen alkiler bat, eta gero, bizikletak oso karuak zian, eta gero ekin zien Orbea eta "La Beistegi" eta bestia eta bestia, eta etorri zan puxkat merka merketzera gehixau, eta gero bai, bueno! Gero

edozeiñek euken bizikletak. Gure etxien be bi euzen. Arrebandako bizikleta bat eta bestie neuretako.

-Gaiñera diferentiak izaten zien neskiana eta mutillana?

-Bai. Batek euken barrie hola goixan, eta bestiek euken hola.

-Neskenak ez zeban eukitzen...

-Manillarra bai goittik, bestiek behetik, bestiek goittik.

-Baiña atzeko erroberetan...

-Holako zera, kordoi batzuketan, mailla bat eindda moduan.

-Ez dakit, "guardafaldas" edo.

- Guardafal... bai, bai, hoixe. Mailla bat moduan eitten zan.

29. Lagun-taldeak; kaleko giroa

- **Erref:** ARE-019/016
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Lagun-taldeak; taberna giroa Arertxabaletan. Txikiteoa egiteko ohitura nondik etorri zen. Abesteko zaletasun handia zegoen; taberna guztietan abestu egiten zen. Neskak ez ziren tabernetan sartzen; gaizki ikusita zegoen.</p>

Transkripzioa

-Oin kuadrilla eta taberna-girua eta; lehenao anbientia diferentia izango zan?

-Bai.

-Txikiteua-eta eitten zan?

-Ez, hainbeste ez. Orduan ohitturia, hori txikiteua ekarri zan kanpotik, Bilbotik, esaten dabe bilbotarrak, Bilbon eitten da txikiteua-eta. Baiña hemen ohitturia uste dot zala lagunak jarri, eta bla bla bla bla! Berba ein eta eran botilla bat eta ia etxera.

-Jarritta eta berbetan?

-Eta oin ez, oin ez dau hori. Bai, eitten da, baiña gehixau eitten da tok! Eta rau! beste batera, tok! eta gero pon! Txikiteua gehixao eitten da, lehen hainbeste ez zan eitten.

-Eta toki batzuetan esaten da kuadrillak kantuan eitteko afiziñua zeukela.

-Kantuan, bueno! Nik Bilbon ikasi neuen kantuan. Txarrena zan... txarrena eta onena: tabernetan ifintten auen: "Se prohíbe cantar y hablar de política".

-Hori Bilbon?

-Bai. Ha ifintten euen bakotxien kantau eitten zan.

-Kartela egon arren...

-Bai ba.

-Baiña, ene! Bilbon edozein tabernetan sartu eta txikito bat atara, eta "ahora qué cantamos?", eta lalarala!!! Kantau, rau eran eta ala! "Ya está".

-Bilbon bai, eta...

-Kantuan beti. Oin ez, radixua dauela, telebisiñua dala, ez dakit ze dauela, ezebez. Baiña lehenau kantuan, buenoo! Guk sasoian kantuan eitten gittuen, bueno, bueno, bueno.

-Orduan ambientia oso differentia da?
-Bai.
-Mutillak eta bai, eta neskak?
-Neskak gutxi.
-Tabernetan?
-Eneeee! Akordetan naz, dantzaz ein eta azkenengo esan, "Oin hartuko dou zer bat, gura dozu kafe edo limonada bat?" "Ez, ez, ez, pentsau be ez".
-Gaizki ikusitta?
-Gaizki ikusitta edo ohitturaik ez, ez dakit zegatik. Eta gauza hola extraordinario izen bazan, e, neska bati esan etorteko [...], zerbezia-edo, limonada-edo. Ardaia-ta horrek pentsau be ez. Baiña gure kuadrilliak-eta kantau. Ni Bilbotik etorten nintzenian, nik ekarten nittuen kantu batzuk. Eta "ze ekarri dok", eta "hauze", eta [...] bera kantau, eta.

30. Mendizaletasuna Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-019/017
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:48:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendizaletasuna. Harreman handia izaten zuten herri desberdinetako mendizaleek. Aretxabaletako mendi-taldeak.

Transkripzioa

-Orduan gauzak asko aldatu dira?

-Bai, bai, eneeee!

-Taberna giruan bai, eta zu aparte, mendira joaten ziñan. Eta, lehenguan esaten zenduan, oso diferentia zan lehen mendira joatia eta oin.

-Bai. Beitu, Guk geukan relaziñua, esaten dotsut: Mondrauetarrekin, Bergarakuakin, Plaentxiakuakin, Eibartarrak, Elgoibarkuakin, Azpeitikuakin, Bitorixakuakin. Hoixe zan, juntetan giñan mendi baten. Hau dala eta bestia dala, datorren domekan nora zoiaze? Eta ez jakixat, han daukela, eibartarrak ein biher dauela jai zera "entrega de medallas" ez dakit nun. A, bueno, bai, ikusiko gaittuk. Eta gero juan bihar zitzen edo trenian edo autobusian, orduan ez euan bakotxak kotxia hartu eta, ez. Eta gero juntatzen zien Bitorixatik etozenak Eibarrera, edo Arantzazura edo, eta han juntetan giñan, eta... Holaxe eitten geuen amistadiak, holaxe ezautu neuen andria-eta.

-Orduan askoz be relaziño gehixao inguruko jentiakin?

-Bai, bai. Guk batez be geuken relaziño haundixak Plaentxiakuekin eta eibartarrekin, Eibarkuekin eta Elgoibarkuekin.

-Eta zuk Deportibokuekin edo UDAkuekin?

-Ez. Lelengo ekin nitzan zerakin, "Alpino Club de Bilbao". Gero handik hona etorri nintzanian, orduan neukan zerian "El Centenario" eitten ebiela, eta orduan ein neuen "el Centenario con el Alpino Club de Bilbao". Hori bukatu neuen milla bederatzirehun eta berrogeta hamahiruan, eta egon nitzan beste hiru urte edo hango sozio eta hemen UDAkin be bai, bixakin, eta gero UDAn kendu euenien mendizale horrek, Murrukixokuek esan usten aber gura doten eurakin juatia, ingo nindduela "socio número uno". Eta bueno, bueno. Eta holaxe fan giñen zerera, Murrukixora.

-Hemen herrixan afiziño haundixa zeuan mendirako.

-Bai, bai, afiziño haundixa euen.

31. Indalecio Ojanguren argazkilari eta mendizalea

- **Erref:** ARE-019/018
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:48:55. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Indalecio Ojanguren, mendizale eta argazkilaria. Oiz mendira joan zirenean ikusi zutenekoa.

Transkripzioa

-Zuk biharbada Indalezio Ojanguren ezagutuko zenduan?

-Bai. Honbree...

-Ezagutu zenduan?

-Indalezio Ojanguren, eta semia be bai.

-"Fotógrafo águila". Eibarren oso famosua da, erretratu asko atera zittualako eta mendirako zeukan afiziñuagatik.

-Mendirako... behin akordetan naz juan giñan zerera, Oizera. Eitten euen bero bat! Puff! Beitu Atxabaletako kurutzia zela jaso euen.

-Eta Oizeko hori?

-Oizera juañ giñen, bero bat! Buenoo! Eta han ez dau arbolarik goixan, eta holakotxe arbola txikitxo bat euen, piñu txikitxo bat. Pasau giñen, ni juañ nitzen andriakin, bueno, orduan ez giñan, nobixo be ez, lagunak, eta beste Plaentxiako batekin eta beste eibartar batekin; eta Ojanguren euen arbola azpixen holaxe.

-Kerizpia bihar.

-"Jo, holako berorik ez juat pasau behin be!" Eta emun gutsen naranja bat, emun gutsen eta ederto.

-Eta zelakua zan bera?

-Bera? Txikitxo bat. Oso zelebria zan, oso zelebria. Baiña, hortik aparte, bakitzu zenbat lan ein auen harek? Zenbat mendiko fotografixak atara zittuen? Eta mendikuak bakarrik ez, eta herrikuak. Eibarkuak, ingurukuak eta danak. Buenoo! Ez euen gauzarik Eibarren pasetan zanik harek fotografixia atara barik geratu zanik.

-Gaiñera korresponsal moduan eitten zeban lana.

-Bai, bai.

-Periodikuetan be sasoi hartako fotografixak, danak.

-Gero jentiakin relazionatzeko zelakua zan?

-Bai, bueno... Oso zelebria zan.

-Esan dozunian mendixena-eta, akordau jata, igual, e...

-Ez zan altua, bastante txikitxua zan, holako surtxo batekin, tik! Flakotxua.

-Eta beti kamaria...

-"Kajoi" deiketan utsen. Klaro, lehenaoko kamarak, ez dakitzu, tripodiakin-eta, eta kajoi haundi bat-eta.

-Baiña itxuria berari ez jakon gustatzen "Kajoi" esatia.

-Ez, ez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com